



Arartekoaren ebazpena, 2008ko urriaren 27koa, herriko biztanleek Olaberriako Udalaren lan batzordeetan parte hartzeari buruzkoa.

Aurrekariak

1. Olaberriako Udaleko zinegotzi (...batek) kexa egin zion erakunde honi, udalak bere eskabide bati erantzun ez ziolako. Zehazki, 2007ko uztailaren 5ean osoko bilkurak hartutako erabakia berriz hausnar zezala eskatu zion udalari, izan ere, erabaki haren arabera, lan batzordeetako parte-hartzaileek udalerrian erroldatuta egon behar zuten eta bertan bizi behar zuten.

Osoko bilkuraren aktatik ateratako informazioaren arabera, Olaberriako Udalak zera erabaki zuen: informatzeko batzorde iraunkorrez gain, beste batzorde ireki batzuk ere sortuko zirela, "lan-batzordeak" izenekoak, garrantzitsutzat jotzen diren hainbat gai aztertzeko, informatzeko batzordeetako presidenteei beharrezkoa dela iruditzen zaienean.

Interesdunak eskuratu zizkigun agirien arabera, osoko bilkuraren erabakian jartzen zuenez, herrian erroldatuta zeuden eta bertan bizi ziren pertsonak parte hartu ahal izango zuten lan-batzorde horietan. Onarturiko proposamen horretaz aktan idatziz jaso zen azalpenean, hauxe adierazi zen: *"interesak direla-eta erroldatuta dagoen jendea dagoela herrian, baina bertan bizi ez dena, eta bere ustez pertsona hauek ez dute batzorde hauetan egoteko aukerarik izan behar"*.

2. Kexa hartu ondoren, Arartekoak horren gaineko informazioa eta balorazioa eskatu zituen, baita herri batean erroldatu eta bizi izateari buruzko indarreko araudia aipatu ere: hau da, herri batean erroldatuta dagoen pertsona orok duela bizilekua herri horretan.
3. Olaberriako alkateak honela erantzun zion gure informazio-eskaerari: egiaz, 2007ko uztailaren 5eko bilkuran, informatzeko batzordeak sortu, osatu eta presidentek aukeratzeaz hitz egin zen.

Eta honako hau gaineratu zuen: Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubideari buruzko Erregelamenduak (azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartuak) 227.2 artikuluan ezartzen duenez, informatzeko batzordeen bilkurak ez dira publikoak, baina Olaberria Udalak, zinegotziei ez





ezik, udalerriko elkarteei ere deitzen die, eta deialdia iragarki-taulan nahiz Web orrialdean argitaratzen du. Bilkura horiek irekiak dira eta nahi duten herritar guztiak joan daitezke bilkuretara.

Azkenik, udalak dioenez, inoiz ez zaio ukatu herritar bati informatzeko batzordeetara joatea.

4. Aurrekari horiek kontuan hartuta, kexan azaldutakoa eta Olaberriako Udalak igorritako erantzuna aztertu eta gero (hor ez zitzaien benetan erantzun kexagileak azaldutako funtsezko gaiari, goian adierazitako aurrekarietatik ondorioztatzen denez), zenbait gogoeta helarazi nahi dizkizugu.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, udalerrri batean erroldatuta dauden eta bertan bizi diren pertsonen buruzko indarreko araudia aztertuko dugu. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (TAOL), apirilaren 2koak, hauxe dio 16. artikuluan:

“Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen diren administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira”.

Bestalde, Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiak (BLMA) xedatzen duenez (uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu zen hori), pertsona guztiek erroldatu beharra daukate normalean bizi diren udalerrian. Norbait udalerrri batean baino gehiagotan bizi bada, urtean zehar denborarik luzeena ematen duen udalerrian soilik erroldatu beharko du (54.1 artikulua).

Xedapen hori BLMAren 55.1 artikulua sendotzen du, izan ere, artikulua horretan adierazten denez, udalerriko auzotarrak dira normalean udalerrian bizi izanik, 54.1 artikuluan ezarritako baldintzak betez udalerriko erroldan inskribatuta daudenak.

BLMAk biztanleen erroldaren kudeaketa ere arautzen du, baita udalek errolda eguneratuta mantentzeko dituzten betebeharrak ere. Gai horretaz, araudi horren 62. artikulua xedatzen du udalaren betebeharra dela erroldako datuak errealitatearekin bat etortzea.





Beraz, udalek ofizioz baja eman behar die –okerreko inskripzioa dela eta–, ezarritako baldintzak bete gabe erroldan agertzen direnei, dagokion espedientean hori egiaztatu ondoren. Espediente hori bideratzean, interesdunari entzungo zaio. (BLMAren 72. artikulua).

Laburbilduz, udalerrri batean erroldatuta dagoen pertsona oro da udalerriko auzotar edo biztanle, eta udalaren ardura da errolda zaindu eta eguneratzea, dagokion espedientea bideratu ostean, ofizioz baja emanez BLMAren 54.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsoneri, hau da, normalean udalerrian bizi ez direnei.

2. Bigarrenik, aztertu beharra dago Olaberriako Udalak ezarri duen antolaketa, aurrekarietan aipatu dugun osoko bilkuraren erabakiaren arabera.

TAOLren 20.1. c) artikulua ezarritakoari jarraiki, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, Araudi Organikoak hala xedatzen badu edo osoko bilkurak hala erabakitzen badu, hainbat organo izango dira osoko bilkuran eztabaidatuko diren gaiak aztertzeko, gai horien berri emateko edo horiek kontsultatzeko. Udala osatzen duten alderdi politiko guztiek izango dute organo horietan parte hartzeko eskubidea, organo horietan alderdietako zinegotziak edukiz, osoko bilkuran dituzten zinegotzien kopuruaren arabera.

Baldintza horietaz aparte, udalek, beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, egokiak iruditzen zaizkien organo osagarriak ezar ditzakete. Iraunkorrak ez diren lan batzordeak –kexan aipaturikoak– udalerriek beren burua antolatzeko duten autonomiaren ondorio izango lirerateke. Beraz, horiek sortzeko borondatea abiapuntutzat hartuta, organo horiek bat letozke udalerriek burua antolatzeko ahalmena erabiltzearekin.

Alabaina, euren burua antolatzeko ahalmen horren erabilera ez da mugagabea; horrela, lan batzordeak osatzeko edo berorietan parte hartzeko ezartzen diren baldintzek ezin dute lortu ezinezko edo legez kontrako edukirik izan. Horren haritik, aurreko atalean adierazi dugun bezala, erroldatutako pertsona bat udalerriko auzotar ez izatea ezinezkoa denez gero, udalak –lan batzorde horietan auzotar guztientzako atea zabalik mantentzen baditu behintzat– auzotartzat jo behar ditu erroldatuta dauden eta, beraz, bizilekua bertan duten pertsona guztiak, izan ere, biztanleen erroldan izena emateak berekin dakar benetan udalerrian bizi izatearen egiaztapena.





Kexagileak egin digun kexaren mamia eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan izanik, honako ondorio hauek helarazten dizkizugu:

Ondorioak

Udalerrri batean erroldatuta dagoen auzotar orok du, nahitaez, bizilekua bertan.

Indarreko legeriari jarraiki eta Olaberriako Udalak, bere borondatez, lan batzordeak irekiak izango direla erabaki duenez gero, interesatuta dauden auzotar guztiek –hitz horren legezko adieraren arabera– eskubidea dute informatzeko batzordeetako presidenteez deitzen dituzten lan-batzordeetan parte hartzeko.

